

Zumaiako
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO

PLAN ESTRATEGIKOA

ZUMAIAKO UDALA

2023-2027 PLANGINTZALDIA

2024KO MARTXOAN

*euskar
txanpan*

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. PLANAREN AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA	4
3. METODOLOGIA ETA PROZEDURA	5
4. DIAGNOSTIKOA	7
5. 2023-2027RAKO PLAN ESTRATEGIKOA	17
6. EGITURAKETA ETA BALIABIDEAK	28
I. ERANSKINA: 2024KO LANPOSTU ZERRENDA	32
II. ERANSKINA: HIZKUNTZA IRIZPIDEAK	37

1. SARRERA

Dokumentu honetan jaso dugu Zumaiako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa. Dokumentuaren helburua da erakustea euskarazko jardunak zer toki duen udal honetan, eta hori hobetzeko zer pauso eman behar diren. Horrez gain, aurrera begira erreferentzia izango diren irizpideak ere jaso dira bertan, eranskin gisa.

Metodologia berria eta hura kudeatzeko aplikazioa tarteko, atzeratu egin da planaren azken lanketa eta onarpena, eta azkenean bat egin du 86/1997 Dekretua ordeztu duen 19/2024 dekretu berriarekin. Horrela, aukera izan dugu legeria berriaren arabera helburuak eta irizpideak eguneratzeko.

2023-2027 artean izango du balioa plan estrategiko honek, eta urtez urte kudeaketa plan bat egingo zaio, bost urteko ikuspegi estrategikoaren baitan urtez urteko helburuak, arduradunak, epeak, neurriak eta baliabideak zehaztuta.

Ebaluazioa egiteko orduan udal langileen eta ordezkarien ekarpenak jaso dira, eta abiapuntu horrekin helburu orokor batzuk ere jarri ditugu. Hala ere, plan estrategiko hau etengabe aberasten eta egokitzen joan beharko dugu, elkarlanean.

Zumaiako Udala UEMAKo kide

Etorkizuneko Euskal Herri euskaldun baten alde lanean ari den erakunde publikoa da Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea. Zumaia udalerrri euskalduna da, herritarren % 74k euskaraz badaki, eta Udalak 2009 urtean erabaki zuen UEMAKo kide izatea; orduz geroztik lankidetzan jardun du UEMArekin, bai udal administrazioa euskalduntzeko bidean, bai herrira begirako hainbat jardueratan. UEMAk zehaztutako gidalerroak eta oinarrizko irizpideak aintzat hartu dira plan estrategiko hau lantzeko orduan ere.

2. PLANAREN AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

Euskararen 10/1982 Legeak jada aurreikusi zuen EAeko administrazioaren zerbitzupeko pertsonala arian-arian euskalduntzea, herritarrei eskubideak bermatzeko, eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak herri administrazioetako euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren oinarriak finkatu zituen. Horri loturiko lehen plangintzaldian (1990-1995) helburu nagusia izan zen langileak prestatzen hastea euskaraz ere jarduteko gai izan zitezen.

Bigarren plangintzaldia araupetzen zuen 86/1997 Dekretuak administrazioetan euskarazko erabilera areagotzeko ardura jaso zuen, eta hori lortzeko neurri osagarriak hartu beharra ere bai, 5 urteko epeetan nahitaez plan batzuk onartu eta bultzatuta.

Harrezkero erabilera planak landu eta gauzatu dira administrazio askotan: euskarako klaseak antolatu, liberazioak, hizkuntza eskakizunak egiaztatzea, irizpideak lantzea... Zumaiako Udalak 2003an hasita egindako ahalegin handiari esker, herritarrei zerbitzua euskaraz emateko gai da erabat. 2021ean kanpo ebaluazio bat eskatu zuen Udalak, eta orduan jasotako **urrezko BIKAIN ziurtagiriak** adierazten du euskararen presentzia eta erabilera egoki kudeatzen dituela.

Azken urteotan **kudeaketak** hartu du gero eta pisu handiagoa, eta **hizkuntza lidergoak** ere bai. Udalarari eredugarri jotzeko dagokio, eta VII. Plangintzaldirako gidalerro nagusia horixe izango da. Arduradun politiko eta teknikoak izango dira, ezinbestean, Udalean euskararen erabilera kudeatu eta gidatuko dutenak, jarrera proaktiboa erakutsita.


Arrakastarako gakoak izango dira, berriz, **eskaintza linguistiko aktiboa** egitea (euskal hiztunen estres linguistikoa arintzeko), egindako jarduerak ebaluatu eta egokitzea, testu argiak eta kalitatezkoak zabaltzea eta planari berari jarraipena behar bezala egitea.

3. METODOLOGIA ETA PROZEDURA

Plan estrategiko hau egiteko Eusko Jaurlaritzak VII. Plangintzaldirako proposatutako metodologia eta irizpideak baliatu ditugu, eta oinarrian KEMEN markoa dago. Laguntza koadro bat da KEMEN, erakundean hizkuntzaren presentzia, erabilera eta kudeaketa zertan gauzatu ohi den adierazten duena modu eskematiko eta ordenatuan.

Bi ardatz nagusi ditu: **KUDEAKETA** eta **ERABILERA**. Honakoak dira metodologiaren ezaugarri nagusiak:

- Euskararen erabilera sustatzera bideratutako kudeaketa.
- Planen eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa.
- Erakundeko kargudunen eta arduradunen inplikazio eta lidergoa.
- Zeharkakotasuna erronka gisa.



Irudian KEMEN markoa osatzen duten **2 ardatzak** eta **13 arloak** ikus daitezke. Horien azpian **48 adierazle** daude.

Jaurlaritzak aplikazio informatiko bat jarri du udalon eskura, SAREGIN izenekoa, eta horren bitartez 2024ko urtarrilean argazki bat atera zaio Zumaiako Udalari, euskararen erabilera nola kudeatzen duen ikusteko.

Datu horiek lortzeko bi galdetegi bete dira:

- Erakundeari dagokiona, euskara teknikariak lankide eta arduradun batzuen laguntzaz zehaztutakoa (tartean behaketa batzuk eginez).
- Langileen galdetegi: 78 bidali dira, eta 62 erantzun jaso (ia % 80ko parte hartzea), 41 emakume eta 21 gizonenak.

2021ean egindako **Bikain ebaluazioko edukiak** ere baliatu ditugu txosten honetan, bai egoeraren berri emateko, eta baita aurrera begirako proposamenak zehazteko orduan ere.




4. DIAGNOSTIKOA

Bi iturri erabili ditugu egoeraren argazkia erakusteko: batetik, 2021eko udazkenean jasotako ebaluazioa (indarguneak eta hobetzeko hainbat alorretan), eta, bestetik, 2024ko urtarrilean bildutako datuak

2021eko BIKAIN ebaluaziokoa

Abiapuntu moduan baliagarria da BIKAIN ebaluazioaren ondorioak labur-labur jasotzea. Udalak URREZKO ziurtagiria eskuratu zuen, **1.000 puntutik 900-949ko tartean** kokatzea lortu zuelako. Ebaluatzaileen arabera, hauek ziren Zumaiako Udalaren **indarguneak**:

- Udalak zehaztuta dauka hizkuntza politika eta txertatuta ditu hizkuntza irizpideak udal jarduera orotan. Horrez gain, Udalak indarrean du Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) ere.
- Udalean euskaraz egiten dute lan eta euskara da harremanetarako hizkuntza. Herritarrek bere egin dute Udalak erakusten duen euskarekiko joera.
- Udalaren Euskara Zerbitzuak ardura handia erakusten du hizkuntza irizpideak bete daitezen.



Bestetik, aurrera egiteko **hobetzeko proposamen** hauek jaso zituen Udalak:

- Udalak sendotasuna irabaziko luke helburuen jarraipena egiteko prozedurak idatziko balitu.

- Ez dago prozedura bat ezarrita elementu bakoitzean hizkuntza irizpideak langile guztiei heldu zaizkien jakiteko; ez dago helburuak betetzen diren ikusteko erregistrorik, eta ez dira neurri zuzentzaileak zehazten.
- Komenigarria izango litzateke langile guztiei ondo azaltzea Jarraipen Batzordea zein den, baita haren egitekoak ere.


2024ko datuak

8

KEMEN markoa erabiliz egin da VI. Plangintzaldiaren ebaluazioa eta plan berria zehazteko ere oinarria horixe izan da. Marko berriak hizkuntzen erabilera kudeatzeko ardatz, eremu eta arloak jasotzen ditu, eta horien neurketa ahalbidetzen duten adierazleak eta horretarako euskarri eta azalpenak.

Lehentasunezko tokia aitortzen zaio kudeaketari, hau da, planak garatzeko egiturari, sistematikari eta elkarlanari. Kudeaketa, hala ere, helburua baino eragiteko palanka da, hain zuzen ere, erabileran eragitekoa. Beraz, euskararen erabilerari dagozkion adierazleetan eragin handia duten kudeaketa adierazleak txertatu dira: jarraipena, zeharkakotasuna, kudeaketa sistematikoa, lidergoa, estrategia...

Langileen eta erakundearen galdetegiak SAREGIN aplikazioan sartu eta gero, emailtza nagusi hauek eman ditu 2 ardatzetan eta 13 alorretan:



Ehuneko orokorrak esan nahi du 1.000 puntutik **853 puntu** lortu dituela Zumaiako Udalak; BIKAIN ebaluazioan emandakoa (900-949 tartea) baino txikiagoa da, baina horrek ez du esan nahi azken bi urteotan behera egin duenik erabilerak, baizik eta Udalak berak zorrotzago eta baxuagotik ebaluatu dituela puntu batzuk ebaluatzaileek baino.

1. ardatza: KUDEAKETA

2021eko BIKAIN ebaluaziokoak

Indarguneak

- Zumaiako Udalak plan sendoa du eginda, ondo egituratuta, eta helburuak ondo zehaztuta. UEMak ezarritako irizpideak hartzen ditu aintzat Udalak, eta langile guztiei helarazten zaizkie.
- Zumaiako Udalean langileen kontratazioan eta barne sustapenean hizkuntza irizpideak ezarrita daude eta betetzen dira orokorrean. Langileek euskara ikasteko edo hobetzeko aukera dute.
- Zumaiako Udalean, langile etorri berriei harrera euskaraz egiten zaie eta banatu egiten zaizkie dagokien sailean bete behar diren hizkuntza irizpideak.
- Alkateak lidergoa erakusten du helburuen jarraipena egitean.
- Udalak itunak eta aliantzak dauzka beste entitateekin hizkuntza arloan. Esaterako, GFAko foroetan eta UEMAn.
- Zumaiako Udalak jaso egiten ditu herritarren kexak, erregistratu egiten dira eta erantzuna ematen die.

Hobetzekoak

- Lagungarria izan daiteke prozedurak ezartzea hizkuntza irizpideon banaketa egiteko eta langileek eta zinegotziek kontuan izaten dituztela jakiteko.
- Euskararen Erabilera Planean lortu diren emaitzak ez dira Plan Estrategiko orokorrera eramaten.
- Planean ezarritako helburuak betetzeko irizpideak sail bakoitzari dagozkio. Ez dago horretarako jarduteko modu bateraturik.

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	300
81,30	243,90	

Datuak oso onak dira, Besteak baino baxuago puntuatu dira kudeaketako egitura bereziak edukitzea eta planari egindako jarraipena.

1.0.1 arloa. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

Hasierako egoera		Gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	60
75	45	

Jarraipena egiteko organo berezirik ez dago, lehendik dauden organo eta egiturak erabiltzen dira: Euskara Zerbitzua, Euskara Batzordea, Antolaketa bilera, etab. Jarraipen estuagoa UEMAko teknikariarekin eta euskara zinegotziekin egiten zaio planari.

1.0.2 arloa. LIDERGOA

Hasierako egoera		Gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	75
77,60	58,20	

Arduradun politikoek eta teknikoek jarrera egokia dute oro har eta batzuk oso inplikaturik daude euskara bultzatzeko orduan.

10

1.0.3 arloa. LANGILEAK

Hasierako egoera		Gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	60
80,80	48,48	

Langileek informazioa jasotzen dute, irizpideak ezagutu eta betetzen dituzte oro har. Sustapen ekintzetan parte hartzearen balorazioa baxua da (% 45ekoa), azken urtebete inguruan deialdi zabalik ere egin ez delako, baina horrek adierazten du komunikazioa ez dela langile guztiengana iristen.

1.0.4 arloa. GAITASUNA

Hasierako egoera		Gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	Ez da haztatzen
98,63	-	

Lanpostu zerrendako langileekin ateratako ehunekoa jaso da taulan, eta datua oso ona da. Nolanahi ere, badira subrogazio bidez Udalean sartu berri diren langile batzuk (12 inguru), garbitzaileak, eta haietako batzuek ez dute gutxieneko mailarik. Horrek gehienbat Pertsonal sailean eta zerbitzuaren antolaketan gaztelaniaz ere jardutea ekarri du azkenaldian. Langile horietako batzuk euskara ikasten edo hobetzen hasiak dira, lanpostu zerrendan sartzeko 1. HE egiaztatzea eskatuko zaielako.

Lanpostu zerrendako langile ia guztiek dituzte egiaztatuta dagozkien hizkuntza eskakizunak edo altuagoak:

- Langile batek egiaztatua du 1. HE, eta 13 langilek 2. HE
- Lanpostu zerrendako 35 langilek badute 3. HE, eta 25ek 4. HE ere bai; hau da, % 80k baino gehiagok du EGaren pareko agiria edo altuagoa.

1.0.5 arloa. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA

Hasierako egoera		Gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	45
97,50	43,88	

Herritarrei eta gertuko erakundeei ematen zaie Udalaren estrategiaren berri, planeko partaide eta laguntzaile izan daitezen.

11

1.0.6 arloa. HIZKUNTZA KLAUSULAK

Hasierako egoera		Gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	60
81,30	48,78	

Kontratuetan eta dirulaguntzetan hizkuntza baldintzak txertatzeko prozedura dago. Hala ere, zaila da jarraipena zorrotz egitea.

2. ardatza: ERABILERA

Hasierako egoera		Gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	700
87,00	609,00	

Datua oso altua da, Udalak abiapuntu oso ona daukala adierazten du.

2.1. ZERBITZU HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	210
97,40	204,54	

Datua oso altua da, Udalak % 100era iristeko abiapuntu oso ona daukala adierazten du.

2.1.1 arloa. IRUDIA

2021eko BIKAIN ebaluaziokoak

Indarguneak

- Udalak herrira eta kalera ematen duen irudia euskarazkoa da bete-betean.

- Udalak argi dauka Zumaiak herri euskalduna izan behar duela eta hori islatu nahi du hizkuntza paisaian.
- Covid-19aren ondorioz Udalak ipini behar izan dituen karteletan eta argitaratu dituen oharretan ere euskara lehenetsi du.
- Udalak argitaratzen duen aldizkarian euskarak du lehentasuna; prentsa oharrak eta publizitatea euskaraz lantzen ditu Udalak; agendak, festetako egitarauak eta bestelako oharrak ele bietan egiten dira, euskarari lehentasuna emanda.
- Jendaurreko ekitaldiak euskara hutsean edo ele bitan izaten dira, azken horietan euskara nabarmenduta.
- Ingurune digitalean euskara erabiltzen da gehienbat.
- Zumaiako Udalak bermatuta du turismo arloan ere euskara presente izatea.

12

Hobetzekoak

- Ezer ez. Udalak ondo erein du euskararen hazia hizkuntza paisaian eta herritarrak konplize bihurtu ditu zeregin horretan.

Hasierako egoera		Gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	42
100	42	

Ehuneko honetan ez dira bereizten euskara hutsean eta ele bietan daudenak. Planean aztertu beharko da ea euskarazkoen ehunekoa zenbateraino igo daitekeen.

2.1.2 arloa. HERRITARREKIKO HARREMANAK

2021eko BIKAIN ebaluaziokoak

Indarguneak

- Zumaiako Udalean euskaraz hartzen dituzte herritarrak eta bezeroak.
- Herritarrek eta bezeroek bete behar dituzten inprimakiak euskara hutsean edo ele bitan daude.
- Udaltzaingoa herritarrek ez dute beti bermatuta ahozko arreta euskaraz izango denik edo tramiteak euskaraz egin ahal izango dituenik. Udalaren arduradunek badakite eta neurriak hartzen ari dira egoera ahalik eta ondoen bideratzeko.
- Udalak herritarrei eskaintzen dieten ikastaroak euskaraz dira; herritarrek hori barneratuta dute.

Hobetzekoak

- Ondo legoke plangintza bat asmatzea herritarrekiko harremanak euskara hutsean izateko prozesu horretan laguntzeko.

Hasierako egoera		Gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	168
96,80	162,62	

Erabilera datuak oso altuak dira, baita herritarren aldetik ere. Hala ere, euskaraz bakarrik egin daitezkeen agiri batzuk (jakinarazpenak...) bietara egiten dira, erosoagoa delako bereizketarik gabe beti berdina egitea.

13

2.2. LAN HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	490
82,50	404,25	

Datuak oso altuak dira eremu honetan ere. Prestakuntzarekin lortutakoek jaisten dute gehienbat puntuazio orokorra, eta Udalak ezin du hor zuzenean eragin, kanpoko eskaintzak jartzen duelako muga.

2.2.1 arloa. BARNE HARREMANAK

2021eko BIKAIN ebaluaziokoak

Indarguneak

- Udalean euskara da berezko hizkuntza; langileen arteko idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz dira.
- Lanari lortutako hizkuntza paisaia euskara hutsean dago gehienbat.
- Udaleko lan batzarrak euskaraz izaten dira, egin denek egiten dutelako euskaraz, zinegotzi batek izan ezik, eta horrek ulertzen du euskaraz.
- Covid-19aren aurrean hartu behar izan diren neurriak (telelana egiteko bideak, lana seguru egiteko protokoloa...), denak euskaraz landu eta zabaldu dira.
- Ordenagailuetan programa informatikoak denak daude euskarazko bertsioan instalatuta eta langile guztiek erabiltzen dituzte.

Hobetzekoak

- Egoera edo une batzuetan, ohituraz edo, gaztelaniara jotzen da, esate baterako batzarren batean edo telefonozko barruko elkarrizketaren batean.

Hasierako egoera		Gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	147
94,70	139,21	

Udaltzaingoa (ahoz) eta Brigadan (lan bileretan) jaso dira datu baxuenak. Prozedurak eta arauak lantzeko orduan abiapuntua euskara da, nahiz eta eredu elebidunak erabiltzen diren, gero halaxe argitaratzen direlako. 2023-2027 agintaldi honetan zinegotzi denek dakite euskaraz, eta lehen baino gehiago egiten da euskara hutsean, ahoz eta idatziz.

14

2.2.2 arloa. KANPO HARREMANAK

2021eko BIKAIN ebaluaziokoak

Indarguneak

- Udalak beti jotzen du Administrazioekin dituen harremanak euskara hutsean izan daitezen, ahozkoetan zein idatzizkoetan; adibidez, GFArekin edo EJrekin.
- Udalak euskaraz bideratzen ditu erakunde pribatuekiko idatzizko eta ahozko harremanak eta *presioa* egiten die horrela izan dadin; horren adibidea, banketxeei edo aseguru etxeei eskatzen diena.
- Geoparkean, UEMAn eta beste udal batzuekin izaten dituen harremanak euskaraz dira.

Hobetzekoak

- Udalak jarraipen handiagoa egin beharko lioke hornitzaileek duten hizkuntza erabileraren betetze mailari.

Hasierako egoera		Gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	98
90,10	88,30	

Datua oso ona da, beste aldekoen euskara maila edo jarrera ona ez izateak oztopatzen du erabilera handiagoa.

2.2.3 arloa. PRESTAKUNTZA

2021eko BIKAIN ebaluaziokoak

Indarguneak

- Lanpostu bakoitzak bere balorazioa du euskaraz idatzita eta bertan lanpostu horri esleitutako hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data daude zehaztuta.
- Langileek bete behar dituzten inprimakiak (baimenak, lanorduen kontrola, ordutegiak, nominak eta arlo horietako tramiteak) euskaraz daude eta euskaraz bideratzen dira.
- Ikastaroa Udalak berak antolatzen badu, euskara hutsean izaten da. Kanpoko ikastaroak euskaraz izan daitezen eskatua dio IVAPi.

Hobetzekoak

- Prestakuntza ikastaroetan hizkuntza teknikoari ere garrantzia eman beharko litzaioke.
- Euskara ikastaroetan ikasitakoaren jarraipena egiteak lagundu egingo luke baliabideak ondo aprobetxatzen diren jakiteko.

Hasierako egoera		Gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	73.5
55,80	41,01	

Kanpoko eskaintzan askotan ez da aukerarik ematen euskaraz egiteko; txosten batean jasotzen dira prestakuntzako datuak urtero. Barrukoak euskaraz bideratzen ditu Udalak.

2.2.4 arloa. BALIABIDE INFORMATIKOAK

Hasierako egoera		Gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	73.5
76,40	56,15	

Euskaraz dauden aukera guztiak halaxe jartzen dira hasiera batean, baina askotan ez dago modurik jakiteko euskaraz erabiltzen direla.

2.2.5 arloa. SORTZE HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	98
81,10	79.48	


Datua ona da, baina langile batzuek aitortzen dute oraindik konfiantza falta zaiela euskaraz erraz eta eroso sortzeko.

ONDORIO NAGUSIAK

- Zumaiako Udalean **ezagutza maila altua** da eta etorkizunean ere bermatuta egongo da langileen hizkuntza gaitasuna; abian dagoen egonkortze prozesuak sendotu egingo du indargune hori, gainera. Garrantzitsua da zerbitzua euskaraz eskaintzeko **baldintzak zaintzea**: euskara lehenetsita egotea, erraztea euskaraz harremana nahi duten herritarrei zerbitzua hala ematea, hizkera egokia eta ulerterraza erabiltzea, eta langileek jarrera proaktiboa izatea herritarrei euskararen erabileraren aldeko eskaintza egiteko.

- Euskaraz **sortzeko baliabideak** eskaintzen jarraitzea lehentasunezkoa izango da VII. Plangintzaldian ere. Langileek euskaraz idazteko erraztasuna lortzea da azken helburua eta eroso jardutea. Horretarako laneko **prestakuntza** euskaraz izatea garrantzitsua izango da, baita laneko ohiko **fresnak** euskaraz izatea ere.

- **Gobernantzari** lotuta, **kudeaketa** zaindu, **lidergoa** bultzatu eta Plan Estrategikoari **jarraipena** egiteko prozedura zehaztu beharko da. Horretarako, **egituraketa** egokia antolatzea izango da Plangintzaldi berriaren erronka nagusia.



5. 2023-2027RAKO PLAN ESTRATEGIKOA

Jarduketa prozesu bat da **PLAN ESTRATEGIKOA**, xedetzat duena euskararen erabilera zerbitzu hizkuntza gisa bermatzea eta lan hizkuntza gisa areagotzea eta normalizatzea. Horretarako, 5 urteren buruan lortu nahi diren helburuak, eragin beharreko eremuak eta aztertu beharreko adierazleak biltzen ditu, betiere hasierako diagnostiko kuantitatibo eta kualitatibotik abiatuta.

MISIOA: Zumaiako Udala euskararen normalizazioan **eredugarri eta eragile** izatea.

IKUSPEGIA: 2027ko abenduan gaude eta...

- Zumaiako Udala euskararen **babesgunea** da.
- Euskara da Udaleko ohiko **lan hizkuntza**, bai ahoz eta bai idatziz.
- Euskara erabiltzeko **eragile aktiboa** da Udala harreman guztietan.
- Herriarren **hizkuntza eskubideak** bermatzen ditu.
- **Gobernantza** egokiarekin kudeatzen ditu hizkuntzak, **zeharkakotasunez** eta **partaidetza** bultzatuta.
- Euskal hiztun ahaldunduz osatutako **komunitatea indartzen** du.

Bi ardatzetan banatuta, kudeaketan eta erabileran, **ERRONKA** batzuk izango ditu, eta 13 arloetako bakoitzean zenbait **HELBURU ESTRATEGIKO**. Plan estrategikoan jasotako helburuak lortzeko tresna **KUDEAKETA PLANA** izango da. **Urtero** landuko dira eta **EKINTZA** zehatzak azalduko dira haietan, baita arduradunak, epea eta jarraipena egiteko modua ere.

2024ko kudeaketa planean 3 ekintza multzo nagusi landuko dira bereziki:

- Plan estrategikoa kudeatuko duten **egiturak** abiaraztea.
- Plana bera eta hizkuntza irizpideak erakunde osoan **jakinaraztea**.
- Espedienteak kudeatzeko **aplikazio berrirako aldaketa** egoki egitea, hizkuntza irizpideak aintzat hartuta.

Taula batzuetan bildu dira SAREGIN aplikazioan 48 **ADIERAZLEETAN** jasotako emaitzak (1. zutabea) eta ondoan jarri dira 2027 amaieran zer lortu nahi den (2.ean, zuriz) eta zenbateko aldea dagoen kopuru batetik bestera (3.ean), **adierazle guztiak** hartuta.

	<u>2024</u>	<u>2027</u>	<u>aldea</u>
0 Ehuneko orokorra	% 85,30	% 97,30	% 12,00

Guztira **120 puntuko igoera** hartu da jomugatzat, hau da, **ehuneko orokorra % 12 gehitzea**.

- KUDEAKETARAKO ERRONKAK**

- Egitura egokia antolatzea Udalaren kudeaketa orokorrean txertatuta.
- Jarraipen sistematikoa egitea.
- Hizkuntza irizpideak ezagutarazi eta betearaztea.
- Arduradun politikoen eta langileen lidergoa sustatzea.

	<u>2024</u>	<u>2027</u>	<u>aldea</u>
1 KUDEAKETA	% 81,40	% 99,50	% 18,10

Guztira **6 arlok** eta **20 adierazlek** osatzen dute ardatz hau.

1.0.1	EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	% 75,00	% 100,00	% 25,00
1.0.1.1	Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du	% 75,00	% 100,00	% 25,00
1.0.1.2	Plan estrategiko, kudeaketa plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da	% 75,00	% 100,00	% 25,00
1.0.1.3	Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, bere lan jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean	% 100,00	% 100,00	% 0,00

• **Helburu estrategikoak**

- Egitura egonkorra eratzea planaren jarraipenerako Udaleko langile eta ordezkari politikoekin.
- Euskararen kudeaketa orokorra Udalaren kudeaketaren baitan integratu eta sistematizatzea.
- Planean zehaztutako helburuen eta hizkuntza irizpideen betetze mailaren jarraipen sistematikoa egitea.
- Kanpo ebaluazioa egitea (BIKAIN) planaren amaiera aldera, emaitzak neurtzen laguntzeko.

1.0.2	LIDERGOA	% 77,60	% 100,00	% 22,40
1.0.2.4	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa planetan finkatutako helburuak bete daitezten.	% 82,50	% 100,00	% 17,50
1.0.2.5	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	% 75,00	% 100,00	% 25,00
1.0.2.6	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa planetan zehaztutako moduan.	% 75,00	% 100,00	% 25,00

• Helburu estrategikoak

- Udal ordezkari eta arduradunek euskararen normalizazioan jarrera proaktiboa izatea.
- Ordezkarri politikoak aurrerantzean ere euskaldunak izan daitezen sustatzea.
- Hizkuntza irizpideak ezagutzea eta betetzea, sail guztietan.
- Herriarren eta gainerako langileen aurrean eredugarri izatea.

1.0.3	LANGILEAK	% 80,80	% 97,50	% 16,70
1.0.3.7	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa planei eta hizkuntza irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	% 75,60	% 100,00	% 24,40
1.0.3.8	Langileek dagozkien hizkuntza irizpideak betetzen dituzte	% 88,60	% 100,00	% 11,40
1.0.3.9	Langileek betetzen dituzte kudeaketa planean adostutako eginkizunak	% 90,80	% 100,00	% 9,20
1.0.3.10	Langileek parte hartzen dute kudeaketa planean zehaztutako sustapen ekintzetan	% 45,60	% 75,00	% 29,40
1.0.3.11	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundean duen bilakaeraz.	% 85,70	% 100,00	% 14,30

• Helburu estrategikoak

- Langileek hizkuntza irizpideak ezagutzea eta betetzea.
- Sustapen ekintzetarako gonbidapenak denei zabaltu eta langile gehiagok parte hartzea.

1.0.4	HIZKUNTZA GAITASUNA	% 98,40	% 100,00	% 1,60
1.0.4.12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko	% 100,00	% 100,00	% 0,00
1.0.4.13	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko	% 95,20	% 100,00	% 4,80
1.0.4.14	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko	% 100,00	% 100,00	% 0,00

• Helburu estrategikoak

- Langileek euskara maila hobetzea, bereziki eginkizunak euskaraz egoki betetzeko zailtasunak dituztenak.
- Hautaprobetan gutxienez proba bat euskaraz egitea.
- Ordezkarri politikoei laguntza eta trebakuntza eskaintzea gaitasuna hobetu eta Udalak euskaraz funtzionatu ahal izateko.

1.0.5	EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA	% 97,50	% 100,00	% 2,50
1.0.5.15	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes taldeei.	% 100,00	% 100,00	% 0,00
1.0.5.16	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartzen du	% 91,50	% 100,00	% 8,50

• Helburu estrategikoak

- Ordezkarri tekniko eta politikoei parte hartzea hizkuntzen kudeaketarekin lotutako foro eta jardunaldietan.

1.0.6	HIZKUNTZA KLAUSULAK	% 81,30	% 100,00	% 18,70
1.0.6.17	Kontratuetan hizkuntza klausulak txertatzen dira.	% 100,00	% 100,00	% 0,00
1.0.6.18	Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza klausulak txertatzen dira	% 100,00	% 100,00	% 0,00
1.0.6.19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza klausulen betetze mailari	% 75,00	% 100,00	% 5,00
1.0.6.20	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza klausulen betetze mailari.	% 75,00	% 100,00	% 25,00

• Helburu estrategikoak

- Kontratu etako hizkuntza klausulen jarraipen sistematikoa egitea.
- Dirulaguntzetarako eta hitzarmenetako hizkuntza klausulen jarraipen sistematikoa egitea.
- Udal baimenetarako hizkuntza klausulen ereduak zehaztu, txertatu eta jarraipen sistematikoa egitea.

• ERABILERARAKO ERRONKAK

- Hizkuntza irizpideak ezagutarazi eta betearaztea.
- Euskara izatea sortze, lan eta zerbitzu hizkuntza.

22

	<u>2024</u>	<u>2027</u>	<u>aldea</u>
2 ERABILERA	% 87,00	% 96,40	% 9,40
2.1 ZERBITZU HIZKUNTZA	% 97,40	% 100,00	% 2,60

Guztira **7 arlok** eta **28 adierazlek** osatzen dute ardatz hau.

2.1.1 IRUDIA	% 100,00	% 100,00	% 0,00
2.1.1.21 Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.	% 100,00	% 100,00	% 0,00
2.1.1.22 Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude	% 100,00	% 100,00	% 0,00
2.1.1.23 Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.	% 100,00	% 100,00	% 0,00
2.1.1.24 Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak	% 100,00	% 100,00	% 0,00

• Helburu estrategikoak

- Hizkuntza irizpideak betetzea irudiari lotutako adierazleetan.
- Hizkuntza kalitatea zaintzea.
- Arduradun politikoek agerraldietako hizkuntza irizpideak betetzea.

2.1.2	HERRITARREKIKO HARREMANAK	% 96,80	% 100	% 3,20
2.1.2.25	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz;	% 91,10	% 100,00	% 8,90
2.1.2.26	herriarrek hizkuntza aukeratu baino lehen			
2.1.2.26	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	% 98,20	% 100,00	% 1,80
2.1.2.27	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira	% 95,00	% 100,00	% 5,00
2.1.2.28	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	% 100,00	% 100,00	% 0,00
2.1.2.29	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz	% 100,00	% 100,00	% 0,00
2.1.2.30	Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz	% 71,90	% 80,00	% 8,10
2.1.2.31	Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz	% 79,00	% 85,00	% 6,00

• Helburu estrategikoak

- Ezarritako hizkuntza irizpideak betetzea
- Langileak eta udal ordezkariak proaktiboak izatea herritarrek euskaraz egin dezaten sustatzeko, idatziz nahiz ahoz.
- Idatziz euskaraz egiten duten herritarrei sistematikoki euskara hutsean erantzutea.

2.2	LAN HIZKUNTZA	% 82,50	% 100,00	% 17,50
2.2.1	BARNE HARREMANAK	% 94,70	% 100,00	% 5,30
2.2.1.32	Lan bilerak euskaraz egiten dira	% 90,40	% 100,00	% 9,60
2.2.1.33	Lankideen arteko ahozko lan harremana euskaraz izaten da	% 90,00	% 100,00	% 10,00
2.2.1.34	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da	% 88,90	% 100,00	% 11,10
2.2.1.35	Erakunde barruko idatzizko lan komunikazioak euskaraz egiten dira	% 96,90	% 100,00	% 3,10
2.2.1.36	Erakundeak euskaraz gutxienez lantzen ditu ofizioz abiatutako prozedura administratiboen barne izapideak, betiere hartzailea ezaguna ez den kasuetan.	% 100,00	% 100,00	% 0,00
2.2.1.37	Xedapen orokorrak euskaraz gutxienez lantzen dira izapidetze prozesu osoan zehar.	% 100,00	% 100,00	% 0,00
2.2.1.38	Lanari lotutako hizkuntza paisaia euskaraz dago	% 95,60	% 100,00	% 4,40

• Helburu estrategikoak

- Onartutako hizkuntza irizpideak betetzea.
- Lankideen arteko ahozko erabilera sustatzea.
- Ofizioz hasten diren prozedura administratibo guztiak euskaraz abiatzea.

2.2.2	KANPO HARREMANAK	% 90,10	% 94,00	% 3,90
2.2.2.39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	% 80,00	% 90,00	% 9,50
2.2.2.40	Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	% 100,00	% 100,00	% 0,00
2.2.2.41	Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana	% 73,30	% 80,00	% 6,70
2.2.2.42	Enpresa pribatuei euskaraz edo ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	% 100,00	% 100,00	% 0,00

• Helburu estrategikoak

- Ezarritako hizkuntza irizpideak betetzea.
- Erakundeen artean euskara hutsezko harremana sustatzea eta jarraipena egitea
- Erakunde pribatuekin euskara hutsezko harremana sustatzea eta jarraipena egitea.

2.2.3	PRESTAKUNTZA	% 55,80	% 73,50	% 17,70
2.2.3.43	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.	% 31,00	% 50,00	% 19,00
2.2.3.44	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra.	% 66,60	% 80,00	% 13,40
2.2.3.45	Hizkuntza trebakuntza eskaintzen zaie langileei.	% 75,00	% 100,00	% 25,00

• Helburu estrategikoak

- Langile guztiei hizkuntza prestakuntza eskaintzea.
- Langileei eskaintzen zaien prestakuntza orokorra ahal den guztietan euskarazkoa izatea.

2.2.4	BALIABIDE INFORMATIKOAK	% 76,40	% 100,00	% 23,60
2.2.4.46	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.	% 74,50	% 100,00	% 25,50
2.2.4.47	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak.	% 78,30	% 100,00	% 21,70

- **Helburu estrategikoak**

- Onartutako hizkuntza irizpideak betetzea.
- Lan tresna guztiak euskaraz jartzea.
- Baliabide informatikotatik eratorritako inprimaki eta dokumentazioa hizkuntza irizpideen arabera izatea.

2.2.5	SORTZE HIZKUNTZA	% 81,10	% 100,00	% 18,90
2.2.5.48	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.	% 81,10	% 100,00	% 18,90

- **Helburu estrategikoak**

- Euskaraz sortzea.
- Onartutako hizkuntza irizpideak ezartzea, tartean itzulpenei lotutakoak.

1.ardatza. KUDEAKETA % 35

1.0.1. arloa: EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

1.0.1.2	Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.
---------	---

1.0.2 arloa: LIDERGOA

1.0.2.4	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.
1.0.2.5	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten.

1.0.3 arloa: LANGILEAK

1.0.3.8	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.
---------	--

1.0.6 arloa: HIZKUNTZA-KLAUSULAK

1.0.6.19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.
----------	---

2.ardatza. ERABILERA % 65

2.1. EREMUA: ZERBITZU-HIZKUNTZA (erabileraren % 30)

2.1.2.arloa: HERRITARREKIKO HARREMANAK

2.1.2.25	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.
2.1.2.26	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.
2.1.2.27	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.
2.1.2.28	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.
2.1.2.29	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.

AGINTE TAULA

Adierazleen guztien artean badira 14 berezi, **AGINTE TAULA** edo **PANELA** osatzen dutenak, eta Zumaiako Udalak horien berri emango die Eusko Jaurlaritzako arduradunei, 19/2024 Dekretuak agintzen duen eran.

2.2. EREMUA: LAN-HIZKUNTZA (erabileraren % 70)

2.2.1.arloa: BARNE-HARREMANAK

2.2.1.33	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.
2.2.1.35	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.

2.2.2. arloa: KANPO-HARREMANAK

2.2.2.40	Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.
----------	---

2.2.5 arloa: SORTZE-HIZKUNTZA

2.2.5.48	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.
----------	---

6. EGITURAKETA ETA BALIABIDEAK

Derrigortasun indizea

19/2024 Dekretuaren 25. artikuluan, erakundeak nahitaez bete beharreko derrigortasun indizea ezartzen da. Indize hori Erroldako eta Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistikoen arabera zehazten da honako formula honen bidez: $\text{euskaldunak} + (\text{ia euskaldunak}/2)$. Horren baitan, VII. Plangintzaldi honetan, Zumaiako Udalak nahitaez bete beharreko indizea **% 80,32koa** da 2021. urteko erroldako datu soziolinguistikoen arabera.

28

Euskarazko administrazio unitateak

19/2024 Dekretuko 17. artikuluko 6. puntuaren arabera, entitateak euskarazko administrazio unitateak izendatu ahal izango ditu plan estrategikoan. Euskarazko administrazio unitateak dira baldintza hau betetzen dutenak:

- Lanpostuen % 80an gutxienez lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatuta dutenak, arduraduna barne.

Unitate horiek nagusiki euskaraz beteko dituzte beren eginkizunak, entitate bakoitzaren plan estrategikoak ezartzen duenari jarraituz.

Horrenbestez, **Zumaiako Udalean sail guztiak euskarazko unitate** izendatu ditugu. Ondorioz, unitate eta lanpostu horietan euskara, zerbitzu hizkuntza izateaz gain, lan hizkuntza ere izango da: hau da, agiriaren sorburu hizkuntza euskara izango da, baita lehen hizkuntza ere jendaurreko harremanetan eta unitatearen gainerako zereginetan ere.

Plana kudeatzeko egiturak

Udalaren aginte organoetan eta sailetan hizkuntza kudeaketa zeharkakotasunez landuko da, eta hizkuntza irizpideen **jarraipena egiteko batzorde bat** osatuko du Udalak kide hauekin:

- Arduradun politikoak: alkatea eta euskara zinegotzia
- Udal langileak: ordezkari sindikal bat.
- UEMAko hizkuntza teknikaria
- Euskara teknikaria
- Idazkaria

Jarraipen Batzordearen zeregin nagusiak hauek izango dira (gutxienez urtean bi bider elkartuta):

- Udalaren kudeaketan hizkuntza irizpideak zenbateraino bete diren neurtzea
- Neurri zuzentzaileak proposatzea (behar izanez gero)
- Erabilera planaren jarraipena egitea
- Planaren helburuak betetzeko ekintzak proposatzea
- Planaren helburuak zenbateraino betetzen ari diren ebaluatzea

Nolanahi ere, Udalaren ohiko organo edo gune batzuetan ere emango da jarraipen horren berri: esaterako, **Euskara Batzordean** (alderdi guztietako ordezkariak).

Era berean, **lantalde tekniko bat** egongo jarraipen zehatzagoa egiteko urtean zehar, gutxienez 3-4 bilera eginda: euskara teknikariak, euskara zinegotzia(k) eta UEMAko teknikaria elkartuko dira talde horretan.

Horrez gain, bestelako **lantaldeak** ere eratuko dira kudeaketa planean begiz jotako proiektuak bideratzeko.

Irizpide nagusien laburpena

Zumaiako Udalak bere hizkuntza irizpideak berritu ditu, VII. Plangintzaldiak ezarri duen marko berrira egokituta.

Irizpideen laburpena ekarri dugu atal honetara. Irizpideen zerrenda osoa II. Eranskinean jasota dago.

Orokorra	
Udal ordezkariak	Eredugarriak eta koherenteak izango dira hizkuntza irizpideekin.
Langileak	Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu eta Udalaren hizkuntza irizpideak beteko dituzte.
Hizkuntza gaitasuna	Lanpostu guztiek hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data ezarrita izango dute.
Hautaprobak	Udalak probetako bat gutxienez euskaraz egingo du.
Hizkuntza klausulak	Udal kontratuetan, dirulaguntzetan, hitzarmenetan eta baimenetan beharrezkoak diren hizkuntza klausulak sartuko dira.
Irudia	Erakundearen errotulu, euskarri eta ahozko mezuak euskaraz egingo dira

Argitalpenak, iragarkiak, publizitatea eta agerraldi instituzionalak	Euskaraz egingo dira, eta euskaraz ez dakitenei laguntza eskainiko zaie.
Webgunea eta sare sozialak	Euskara erabiliko da.
Herritarrekin	
Herritarrekiko harremanak ahoz	Lehenengo hitza euskaraz egingo da eta euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egingo zaie herritarrei ahoz.
Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak	Euskaraz egingo dira, eta euskaraz ez dakitenei laguntza eskainiko zaie.
Inprimakiak	Agiriak euskaraz eta ele bietan izango ditu Udalak.
Jakinarazpenak eta baimenak	Euskara erabiliko da beti.
Komunikazio elebiduna	Udala komunikazioa euskaraz eta gaztelaniaz egitera behartuta dagoenean, euskarak izango du beti lehentasuna eta nabarmenduta erabiliko da.
Udal barneko harremanak	
Lankideena artean ahoz	Euskaraz egitea sustatuko da. Udal bileretako hizkuntza euskara izango da.
Hizkuntza paisaia	Errotulu, ohar, zigilu, ordenagailuko karpetak, noizbehinkako oharak... euskaraz idatziko dira.
Idatzizko komunikazioa	Erakunde barruko lan komunikazioak euskaraz egingo dira: memoria, txosten, zirkular, jakinarazpen, barne izapideak...
Prozedura administratiboak	Ofizios abian jarritako prozedura administratiboak euskaraz izango dira.



Kanpo harremanak	
Sektore publikoa	EAEko nahiz Nafarroako erakunde publikoekin euskaraz komunikatuko da, bai idatziz, bai ahoz.
Enpresa pribatuak	Ahozko harremana euskaraz izatea sustatuko da. Idatziz euskara erabiliko da beti.
Prestakuntza eta baliabideak	
Langileentzako prestakuntza	Udalak antolatutakoak euskaraz izango dira. Beste erakunderen batek antolatutakoetan euskarazkoa hautatuko da (aukera den guztietan).
Lanpostuetako tresna edo aplikazio informatikoak	Euskarazko bertsioa jarriko zaie langile guztiei.
Sortze hizkuntza	Horretarako gaitasuna dutenek dokumentazioa euskaraz sortuko dute.



I. ERANSKINA: 2024KO LANPOSTUEN ZERRENDA

Hizkuntza eskakizun guztiak SIMETRIKOAK dira, hau da, ahoz eta idatziz maila bera dute: **1. HE =B1-B1, 2. HE=B2-B2, 3. HE=C1-C1 eta 4. HE=C2-C2**

1. Alkatetza						
Lanpostuaren izena	Lanp. HE	DD	Lanpostuaren egoera	Langile titularrak egiaztatutako HE	Postuan dagoenak egiaztatutako HE	
KOMUNIKAZIOKO ARDURADUNA	4. HE	2020-07-29	Lan kontrat.		4. HE	
2. Idazkaritza						
Lanpostuaren izena	Lanp. HE	DD	Lanpostuaren egoera	Langile titularrak egiaztatutako HE	Postuan dagoenak egiaztatutako HE	
IDAZKARIA	4. HE	1990-12-27	Bit. funtzio.		4. HE	
ADM. OROKORREKO TEKNIKARIA	4. HE	2009-02-16	Bit. funtzio.		4. HE	Egonkortze proz.
ADM. OROKORREKO TEKNIKARIA	4. HE	2016-12-31	Bit. funtzio.		4. HE	Egonkortze proz.
ADM. OROKORREKO TEKNIKARIA	4. HE	2023-11-29	Bit. funtzio.		4. HE	
ADM. GIZA BALIABIDE TEK.	4. HE	2006-12-21	Jabetzan	4. HE		
BERDINTASUN ETA GAZTERIAKO TEK.	4. HE	2009-02-16	Bit. funtzio.		4. HE	Egonkortze proz.
INFORMATIKA TEKNIKARI LAG.	3. HE	2009-02-16	Bit. funtzio.		4. HE	Egonkortze proz.
HAZ ADMINISTRARIA	3. HE	2020-10-29	Jabetzan	3. HE		
HAZ ADMINISTRARIA	3. HE	2020-10-29	Bit. funtzio.		3. HE	Egonkortze proz.
HAZ ADMINISTRARIA	3. HE	2021-11-25	Bit. funtzio.		4. HE	
IDAZK. OROKORREKO ADMINISTRARIA	3. HE	1994-12-30	Bit. funtzio.		3. HE	
GIZA BAL. ETA EUSK. ADMINISTRARIA	3. HE	2009-02-16	Praktikaldian	4. HE		
GIZA BAL. ETA IDAZK. ADMINISTRARIA	3. HE	2023-11-29	Bit. funtzio.		3. HE	



3. Kontu-hartzailatza						
Lanpostuaren izena	Lanp. HE	DD	Lanpostuaren egoera	Langile titularrak egiaztatutako HE	Postuan dagoenak egiaztatutako HE	
KONTU-HARTZAILEA	4. HE	1990-12-27	Bit. funtzio.		4. HE	
DIRUZAINA	4. HE	2018-07-26	Bit. funtzio.		4. HE	
KONTU-HARTZAILETZAKO TEK.	4. HE	2012-01-26	Bit. funtzio.		4. HE	Egonkortze proz.
ERRENTEN ADMINISTRARIA	3. HE	1994-12-30	Jabetzan	3. HE		
KONTABILITATEKO ADMINISTRARIA	3. HE	1994-12-30	Bit. funtzio.		3. HE	
DIRUZAINZAKO ADMINISTRARIA	3. HE	1990-12-27	Bit. funtzio.		3. HE	
4. Hirigintza						
Lanpostuaren izena	Lanp. HE	DD	Lanpostuaren egoera	Langile titularrak egiaztatutako HE	Postuan dagoenak egiaztatutako HE	
HIRIG.-INGURU.-OBREN ARD.	4. HE	2006-12-21	Jabetzan	4. HE		
ARKITEKTO TEKNIKO	3. HE	1990-12-27	Jabetzan	4. HE		
ARKITEKTO TEKNIKO	3. HE	2020-12-17	Bit. funtzio.		3. HE	
INGURUMEN ETA JARDUERETAKO TEK.	3. HE	2006-12-21	HUTSIK			Egonkortze proz.
ADM. LAGUNTZAILEA	3. HE	1994-12-30	Bit. funtzio.		3. HE	
ZERBITZUETAKO ARDURADUNA	2. HE	2008-03-26	Jabetzan	2. HE		
OFIZIALA	2. HE	2017-12-31	Jabetzan	1. HE		
OFIZIALA	2. HE	2016-12-31	Jabetzan	2. HE		
ITURGIN OFIZIALA	2. HE	2020-12-17	Bit. funtzio.		3. HE	
IGELTSERO OFIZIALA	2. HE	2019-12-12	Bit. funtzio.		2. HE	
IGELTSERO OFIZIALA	2. HE	2022-12-01	Bit. funtzio.		3. HE	
PEOIA	1. HE	2014-12-19	Bit. funtzio.		2. HE	Egonkortze proz.



Zumaia Udalak



**UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA**

PEOIA	1. HE	2014-12-19	Bit. funtzio.		2. HE	Egonkortze proz.
PEOIA	1. HE	2019-12-12	Bit. funtzio.		2. HE	
PEOIA	1. HE	2020-12-17	Bit. funtzio.		2. HE	
GARBITZAILEAK (12)	1. HE	2021-06-24	HUTSIK			Kontratu bereziak
5. Gizarte Zerbitzuak						
Lanpostuaren izena	Lanp. HE	DD	Lanpostuaren egoera	Langile titularrak egiaztatutako HE	Postuan dagoenak egiaztatutako HE	
GIZARTE ZERBIT. ARDURADUNA	3. HE	1990-12-27	Jabetzan	3. HE		
GIZARTE LANGILEA	3. HE	2004-12-16	Jabetzan	4. HE		
GIZARTE LANGILEA	3. HE	2008-03-26	Jabetzan	3. HE		
GIZARTE LANGILEA	3. HE	2019-12-12	Bit. funtzio.		3. HE	Oposizioa martxan
GIZARTE LANGILEA	3. HE	2019-12-12	Bit. funtzio.		3. HE	
ADMINISTRARIA	3. HE	1994-12-30	Jabetzan	3. HE		
ADMINISTRARIA	3. HE	2012-01-26	Praktikaldian	3. HE		
ADMINISTRARIA	3. HE	2021-11-25	Bit. funtzio.		3. HE	
6. Turismoa						
Lanpostuaren izena	Lanp. HE	DD	Lanpostuaren egoera	Langile titularrak egiaztatutako HE	Postuan dagoenak egiaztatutako HE	
TURISMO TEKNIKARIA	4. HE	2006-12-21	Jabetzan	4. HE		
TEK. LAGUNTZAILEA	4. HE	2009-02-16	Bit. funtzio.		4. HE	
TEK. LAGUNTZAILEA	4. HE	2010-09-30	Bit. funtzio.		3. HE	



Zumaia Udalak



**UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA**

7. Kultura						
Lanpostuaren izena	Lanp. HE	DD	Lanpostuaren egoera	Langile titularrak egiaztatutako HE	Postuan dagoenak egiaztatutako HE	
KULTURAKO TEKNIKARIA	4. HE	1993-01-18	Jabetzan	4. HE		
ARTXIBO-LIBURUTEGIKO TEK.	4. HE	1992-11-26	Jabetzan	4. HE		
KULTURAKO TEK. LAGUNTZAILEA	3. HE	2009-02-16	Bit. funtzio.		3. HE	
KULTURAKO TEK. LAGUNTZAILEA	3. HE	2022-12-01	Bit. funtzio.		3. HE	
LIBURUTEGIKO ADMINISTARIA	3. HE	1994-12-30	Jabetzan	3. HE		
LIBURUTEGIKO ADMINISTARIA	3. HE	2022-12-01	Bit. funtzio.		3. HE	
KULTURAKO ADMINISTARIA	3. HE	2022-12-01	Bit. funtzio.		3. HE	
ATEZAINA	2. HE	1993-12-30	Jabetzan	3. HE		
ATEZAINA	2. HE	2014-12-19	Bit. funtzio.		2. HE	Egonkortze proz.
8. Euskara eta Hezkuntza						
Lanpostuaren izena	Lanp. HE	DD	Lanpostuaren egoera	Langile titularrak egiaztatutako HE	Postuan dagoenak egiaztatutako HE	
EUSKARA ETA HEZKUNTZA TEK.	4. HE	TP	Jabetzan	4. HE		Tek. profesionala
EUSKARA TEKNIKARIA	4. HE	TP	Jabetzan	4. HE		Tek. profesionala
ATEZAINA	2. HE	1993-12-30	Bit. funtzio.		2. HE	Egonkortze proz.
HAUR TEK. LAGUNTZAILEA	3. HE	2009-02-16	Praktikaldian	4. HE		
LUDOTEKAKO HEZITZAILEA	3. HE	2009-02-16	Praktikaldian	3. HE		
LUDOTEKAKO HEZITZAILEA	3. HE	2009-02-16	Bit. funtzio.		3. HE	Egonkortze proz.



Zumaia Udalak



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

9. Udaltzaingoa						
Lanpostuaren izena	Lanp. HE	DD	Lanpostuaren egoera	Langile titularrak egiaztatutako HE	Postuan dagoenak egiaztatutako HE	
OFIZIALORDEA-UDALTZAINBURUA	3. HE	2017-12-28	Jabetzan	3. HE		
AGENTE LEHENA	3. HE	1990-12-27	Zerbitzu egin.		3. HE	
AGENTE LEHENA	3. HE	2022-12-31	Zerbitzu egin.		3. HE	
AGENTE LEHENA	3. HE	2022-12-31	HUTSIK			
ADMINISTRARIA	3. HE	2020-12-17	Bit. funtzio.		3. HE	
UDALTZAINA	2. HE	1993-07-30	Bit. funtzio.		2. HE	
UDALTZAINA	2. HE	1993-07-30	Bit. funtzio.		3. HE	
UDALTZAINA	2. HE	1993-07-30	Jabetzan	3. HE		
UDALTZAINA	2. HE	1993-07-30	Bit. funtzio.		2HE	
UDALTZAINA	2. HE	1990-12-30	Praktikaldia	3. HE		
UDALTZAINA	2. HE	1993-07-30	Bit. funtzio.		2. HE	
UDALTZAINA	2. HE	2006-12-21	Praktikaldia	3. HE		
UDALTZAINA	2. HE	2006-12-21	Jabetzan		2. HE	
UDALTZAINA	2. HE	2008-03-26	Jabetzan	3. HE		
10. Kirolak						
Lanpostuaren izena	Lanp. HE	DD	Lanpostuaren egoera	Langile titularrak egiaztatutako HE	Postuan dagoenak egiaztatutako HE	
ARDURADUNA	4. HE	2012-01-26	Lan kontrat.		4. HE	Egonkortze proz.
KIROLETAKO TEKNIKARIA	3. HE	1992-12-30	Bit. funtzio.	3. HE		Oposizioa martxan

II. ERANSKINA

ZUMAIAKO UDALAREN HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

2024ko martxoan.

1 SARRERA

19/2024 Dekretuak Bigarren Atalean 7. artikulutik 16.era bitartean arautzen ditu euskal sektore publikoan HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK.

Horiek aintzat hartuta, Zumaiako Udalaren Irizpide hauek landu ditu, UEMArenak oinarritzat hartuta. Hasiera batean 2023-2027 plangintzaldirako erreferentzia izango dira, baina plangintzaldien eta plan estrategikoen iraupenak ez du haien indarraldia baldintzatuko. Horrez gain, Udalak irizpide hauek berrikusi eta aldaketak egin ahal izango ditu.

OHARRA: Irizpide hauek euskararen erabilera dute ardatz; beraz "euskaraz egongo da", "euskara erabiliko da", "euskaraz jarriko da" edo antzeko esaldiak jasotzen direnean, ez du baztertzen beste hizkuntzaren bat ere erabiltzea. Nolanahi ere, euskararen normalizazioa helburutzat hartzen denez, Udalak zein kontratistek, herritarren eskubideak bermatzeko legediak eskatzen duen kasuetan erabiliko dute gaztelania, beti euskararekin batera.

1.1 HIZKUNTZA IRIZPIDEEN PRINTZPIO GIDARIAK

Euskararen erabilera normala eta orokorra

Udalaren jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izango da euskara, bai ahoz eta bai idatziz.

Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea

Herritarrek Udalarekin harreman guztia haiek hautatutako hizkuntzan izateko duten eskubidea bermatuko da. Herritarren hizkuntza eskubide eta betebeharren erabateko berdintasuna lortzeko baldintzak sor daitezen hizkuntza politika ezarriko da.

Ekintza positiboaren printzipioa

Udalak neurriak hartuko ditu euskararen erabilera mugatzen duten oztopoak ezabatzeko, bai eta euskararen erabilera kaltetzen duen edozein bereizketa,

bazterketa, muga edo justifikaziorik gabeko lehenespen ere ezabatzeko. Euskararen alde hartzen diren neurri bereziak –euskaldunen eta beste hizkuntza ofizialaren hiztunen artean berdintasuna sustatzeko eta euskaldunen egoera bereziak kontuan hartzeko– ez dira joko gaztelaniaz aritzen direnak baztertze egintzatzat.

Hizkuntza propioaren aldeko ekintza argiak abiaraztea, hizkuntza aniztasuna sustatzea

Udalak gero eta gehiago erabiliko du euskara, bai barneko jardueretan, bai kanpora begira egiten diren jardueretan ere.

Atzerapausorik ez

Aurreko plangintzen aldean, ez da atzerapausorik onartuko hizkuntza irizpideen inplementazioan.

Euskarak lehentasuna

Euskarari lehentasuna emango zaio, bai ahozkoan eta bai idatzizkoan. Ele bietan egin behar denean ere lehentasuna emango zaio euskarari, euskaraz sortuko da, eta ahal den guztietan euskarazko eta ele bitan egindako idatziak bereiziko dira.

Hizkera inklusiboa

Hizkera inklusiboa eta ez-baztertzaila erabiliko da.

1.2 LEGE OINARRIA

Honako lege hauek hartu dira irizpideok egiteko oinarri gisa:

- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.
- Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, 1992ko azaroaren 5koa.
- 2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena.
- 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- 3/2022 LEGEA, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena.
- 11/2022 LEGEA, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.
- 19/2024 DEKRETUA, otsailaren 22koa, euskal sektore publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.

2 KUDEAKETA

2.1 EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

Udalaren aginte organoetan eta sailetan hizkuntza kudeaketa zeharkakotasunez landuko da, eta hizkuntza irizpideen jarraipena batzorde batek egingo du, indarrean dagoen erabilera plan estrategikoa kudeatzeaz arduratuko denak.

Lantalde tekniko bat ere egongo da jarraipen zehatzagoa egiteko. Euskara teknikariak, euskara zinegotzia(k) eta UEMako teknikaria elkartuko dira talde horretan.

39

2.2 LIDERGOA

2.2.1 Udal ordezkariak

Udalaren hizkuntza politikaren baitan, udal ordezkariak eredugarriak eta hizkuntza irizpideekin koherenteak izango dira, eta Udalarekin harremanetan dauden herritarrekin, beste erakunde publikoekin, entitate pribatuekin eta abarrekin euskararen aldeko jarrera proaktiboa izango dute.

Horretarako guztirako, udal zinegotziek eta udal langileek UEMaren aholkularitza eta laguntza izango dute.

Udalaren hizkuntza politikaren baitan, ordezkari politikoen eginkizuna izango da Udalaren jarduera guztietan hizkuntza irizpideak betetzea eta betearaztea.

Hartara, Udalaren kudeaketarako aginte organoetan hizkuntza ofizialen kudeaketa integratuko da, eta hizkuntza irizpideak zeharkakotasunez landuko dira. Udalaren jarduera guztietan. Jarduera horiek gauzatu aurretik hizkuntzaren erabileran eragingo duten faktore guztiak hartuko dira aintzat, eta hizkuntza irizpideak betetzeko neurriak hartuko dira. Nolanahi ere, udal jarduera batek hizkuntza kexak sortzen baditu, Udalak kexa hori jaso eta euskara sailari, eta dagokion sailari edo aginte organoari bideratuko dio, Udalaren hizkuntza irizpideen arabera erantzuna eman dezan. Era berean, UEMari jakinaraziko dio Udalak.

Udalak, legegaldi bakoitzaren amaieran, herrian zerrendak aurkezten dituzten alderdi politikoei jakinaraziko die Udalak euskaraz lan egiten duela eta konpromisoa eskatuko die hauteskunde zerrendetan aurkezten dituzten hautagaiak elebidunak izan daitezen.

2.3 LANGILEAK

Udal ordezkariak dagokien moduan langileei ere badagokie herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea eta Udalaren hizkuntza irizpideak eta erabilera planak betetzea.

Herritarren aurrean jarrera proaktiboa izan eta lehenengo hitza euskaraz egiteaz gain, herritarren hizkuntza ohituretan eragin handia dauka udal langileek beraien artean zein hizkuntzatan hitz egiten duten. Udalean entzuten den hizkuntza, Udalaren irudia ere bada. Udal langileak euskaraz hizketan aritzeak euskarari prestigioa ematen dio. Hori dela eta, udal langileek lanorduetan beren artean euskaraz hitz egin dezaten sustatuko du Udalak.

Hori guztia bermatzeko harrera linguistikoa egingo zaie langile berri guztiei, Udalaren hizkuntza politika azaldu eta hizkuntza irizpide hauen berri hasieratik izan dezaten.

2.4 HIZKUNTZA GAITASUNA

2.4.1 Langileak

Udalaren helburua izango da Udaleko langile guztiek lana euskaraz egiteko gaitasuna izatea.

Lanpostu zerrendan dauden lanpostu guztiek hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data ezarrita izango dituzte. Lanpostu berriak sortzeko, nahitaezkoa da Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari hizkuntza eskakizuna zehazteko txostena eskatzea. Udalean lanpostu berri bat sortu edo aldaketaren bat egin aurretik Euskara Zerbitzuari jakinaraziko zaio, eta horiek egindako proposamena kontuan hartuko da. Ondoren, lanpostu berriaren funtzioen arabera ezarri beharreko hizkuntza eskakizuna proposatzen duen txostena egin eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara bidaliko du Euskara Zerbitzuko arduradunak, eta Sailburuordetzaren txostena eskatu. Txostena ez da loteslea izango, eta Udalak izango du azken hitza.

2.4.2 Aldi baterako langileen kontratazioa

Edozein dela ere egitekoa, aldi baterako langileren bat kontratatatu behar izanez gero, Udalak lanpostu zerrendako langileei kasuan kasuko betebeharren arabera exijitzen dien hizkuntza eskakizunaren pareko euskara gaitasuna eskatuko die.

Udaleko lanpostu guztiek, unean uneko egoeraren arabera edo aldi baterakoak barne, dagokien hizkuntza eskakizuna izango dute esleitura; horretarako, kontuan izango da zeintzuk diren lanpostu bakoitzaren ezaugarriak eta komunikazio premiak, eta zer hizkuntza trebetasun eska daitezkeen premia horiek betetzeko. Eta, derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duen lanpostu baterako plaza bat ateratzen bada deialdira, hizkuntza eskakizun hori bete egin beharko da lanpostu horretarako irispidea izateko.

Beraz, edozein lanpostu lege hornitzeko, dagokion hizkuntza eskakizunari igarotako derrigortasun data ezarriko zaio Udalean, langileak lanean hasi baino lehen egiaztatua izan dezan.

Lanpostu zerrendakoa ez den beste lanposturen bat sortu edo hornitu behar den kasuetan, lanpostu horrek dituen funtzioen arabera hizkuntza eskakizuna ezarriko zaio, eta langile gaiak lanean hasi baino lehen egiaztatu beharko du.

Horretarako, deialdian espresuki zehaztuko da zein den honako euskara mailetatik kasuan kasuko kontratazioan eskatuko dena:

- Ahoz eta idatziz euskara ulertzea (1. HE).
- Euskara ulertzea, mintzatzea eta irakurtzea (2. HE).
- Euskara ulertzea, mintzatzea, irakurtzea eta idaztea (3. HE).
- Gaitasun maila jasoak euskararen ulermen, mintzamen, irakurmen eta idazmenean (4. HE).

Beharrezkoa denean, beraz, Udalak kontratazioa egin aurretik dagokion euskara proba egingo die izangaiei, eta kontratazio guztietan lan kontratuak euskaraz sina daitezen sustatuko du.

2.4.3 Hautaprobak

Udal lanpostu baterako hautaketa probaren baitan, epaimahaikideak izendatzerakoan, kontuan hartu beharko da hizkuntza gaitasuna. Hautaketa prozesuan, Udalak probetako bat, gutxienez, euskaraz egitea eskatuko die hautagaiei.

2.4.4 Hizkuntza prestakuntza

Udalak aginduak, baimenak eta laguntzak emango ditu langile zerrendako enplegatuek kasuan kasuko hizkuntza prestakuntza egokia lor dezaten. Udal jardueran, kanpora zein barrura begira, hizkuntza erabilera eta eragin handiagoa duten lanpostuak lehenetsiko dira.

Urte osoko ikastaroetan parte hartzea sustatuko da, IVAPekin sinatutako hitzarmena baliatuta, eta dagozkion mailak sendotzeko ikastaro labur eta trinkoak ere bultzatuko dira, UEMAren laguntzarekin.

2.5 EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA

Udalak euskararen erabilera sustatzeko estrategia adostu eta helburuak ezarriko ditu, baita helburu horiek betetzeko behar diren neurri eta baliabideak ere.

2.6 HIZKUNTZA KLAUSULAK

Udalak egiten dituen kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, herritarrei bermatzeko toki erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza baldintza berberetan jasotzea kontratu bidezko jarduerak edo zerbitzuak.

Udalak pleguen bidez, horiek behar dien kasuetan, edota, kontratuan zehaztuta, pleguak behar ez direnetan, argi utziko du kontratatuko den enpresak Udalarekin euskaraz aritu beharko duela.

2.6.1 Zerbitzu enpresak

Zerbitzu enpresa berriekin kontratua sinatzean euskararen baldintza sartuko da, eta Udalaren hizkuntza irizpideak bete beharko dituela adieraziko da.

Udalak prestatutako kontratuak euskaraz sinatuko dira, eta, Udalak prestatzen ez dituen kontratuetan, euskarazko bertsioa eskatu eta sinatuko da.

42

2.6.2 Hornitzaileak

Udala hornitzaileekin harremanetan jartzen denean eta horniketa eskatzeko baldintzak adosten direnean (aurrekontua, faktura, idatzizko harremana...), euskararen inguruko baldintzak ere zehaztuko dira eta enpresa Udalarekin euskaraz arituko dela. Ezarritako baldintzen betetze mailari jarraipena egingo zaio.

2.6.3 Kontratazio administratiboak

Kontratuatarako klausula ereduak indarrean dagoen legeriak ezarritako irizpideen arabera eguneratuko dira, eta beharren arabera kontratazio bakoitzera egokitu. Espedientearen tramiteetako bat izango da hizkuntza klausulak egoki ezarrita daudela egiaztatzea; lan hori euskara teknikariak egingo du, txosten baten bitartez.

Udalak sinatzen dituen kontratuak haxe bermatu beharko dute:

- Herritarrak artatuak izan daitezela haiek hautatzen duten hizkuntza ofizialean.
- Zerbitzua eman dadila, hizkuntza baldintzei dagokienez, Udalak ezarritako hizkuntza irizpideen arabera.

Herritarrekin harreman zuzena eskatzen duten kontratuetan, haxe bermatuko da:

Enpresa adjudikaziodunak Udalaren hizkuntza irizpideak bete beharko ditu zerbitzua ematerakoan. Zehazki, bi hizkuntza ofizialetan jarduteko gaitasuna duten langileak jarri beharko ditu lanpostuetan. Alderdi hori kontratuko administrazio baldintza partikularren agirietan egongo da jasota.

Adjudikaziodun izendatu aurretik eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailerari eskatuko zaio identifikatu ditzala kontratua aurrera eramateko beharrezkoak diren lanpostuetan jardungo duten langileak. Langileok zer hizkuntza maila daukaten aipatu beharko du, eta, hala badagokio, maila hori egiaztatzen duten agiriak aurkeztu.

Zerbitzua ematen duenean, adjudikaziodunak herritarrekiko ahozko harremanak euskaraz izan beharko ditu. Horretarako, enpresa adjudikazioduneko langileak euskaraz ekingo dio elkarriketari, eta, ondoren, erabiltzaileak aukeratutako

hizkuntzan jarraituko du. Herritarrentzako inprimakiak, oharra, ziurtagiriak, jakinarazpenak eta beste idazki batzuk euskaraz ematea bermatu beharko du kontratistak.

OBRA KONTRATUETAN adjudikaziodunak euskarazko seinaleak eta oharra jarri beharko ditu, Udalarekin aurrez adostuta.

Hizkuntza baldintzen betetze mailaren jarraipena egitea kontratazio organoari dagokio. Hizkuntza baldintzak urratzen badira, kontratuak ez betetzeagatik araudiak dioena aplikatuko da.

Udalak edota udal erakundeek hirugarrenei eskatzen dizkieten azterlanak, proiektuak eta antzeko lanak euskaraz, behintzat, idatzita egotea eskatuko dute. Eskakizun hori jasota egon beharko da onartzen diren administrazio kontratuen baldintza agirietan.

KONTRATU TXIKIEI dagokienez, kontratazio horren beharra arrazoitzeko txostena egiten denean, hizkuntza baldintzak ere aurreikusiko dira, ondoren formalizatuko den kontratuan txertatzeko.

2.6.4 Dirulaguntzak eta hitzarmenak

Udalak beste entitate publiko edota pribatu batzuekin hitzarmenak sinatu ahal izango ditu, euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatzeko.

Udalak eta udal erakundeek pertsona fisiko eta juridikoekin sinatzen dituzten hitzarmenak euskaraz idatziko dira.

Hitzarmenaren edukia nolakoa den ikusita, euskara sustatzeko eta herritarren eskubideak babesteko hizkuntza klausulak sartuko dira.

Diruz lagundutako jarduerak berekin dakarrenean herritar multzo zehaztugabe batekin edukitzea zuzeneko harremana, euskararen erabilera bermatuko da.

Diruz lagundutako jardueran komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, euskaraz egingo dira.

Dirulaguntza jasotzen duen ekintzatik eratorri daitekeen hitzaldi edo antzekoren bat antolatzen bada, euskaraz izango da, arrazoitutako salbuespenak izan ezik, —hizlaria euskalduna ez balitz, laguntzaile euskaldun bat behintzat egotea— hizkuntza eskubideak errespetatu daitezke.

Haur eta gazteentzako egiten diren jarduerak euskaraz egingo dira beti.

Zumaiako Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrean zehaztutako baldintza orokorreaz gain, oinarri berezi eta deialdietan baldintza zehatzagoak ere jarriko dira, hala badagokio.

2.6.5 Baimenak

Hirigintzako baimenak

Udalak hirigintzako baimenen bat eman behar duenean, kale eta bide publikoetako hizkuntza erabileran iragarpen, errotulu, ohar, seinale eta abarretan euskara erabiltzeko baldintza jarriko die.

Indarrean dagoen ordenantzaren arabera, jabari publikoaren erabilera pribatiborako baimenetan (terrazak, udal eraikinak...) Udalak klausula egokiak txertatuko ditu erabiltzaileei nahiz kontsumitzaileei ematen zaizkien informazio eta segurtasun abisuak euskaraz komunika daitezen. Udalak eskatuko du jendaurrean jartzen diren errotulu, ohar, seinale eta abarrak euskaraz egotea, eta hala jartzeko laguntza eskainiko du.

Irekitzeko baimenak

Era berean, irekitzeko baimena emateko espedientearen barruan Udalak errotulazioa euskaraz jar dezala gomendatuko dio eskatzaileari, eta horretarako dauden laguntzen berri emango die.

Udalaren instalazioak erabiltzeko baimenak

Edozein delarik ere ekitaldia, Udalaren jabegoko instalazioak erabiltzeko baimena behar den kasuetan Udalak laguntza eskainiko die euskara erabil dadin, jendaurreko ekitaldietan batik bat. Ekitaldi horiei lotutako idatzizko euskarriak (kartelak, iragarkiak, oharak...) euskaraz egingo dira.

Baldin eta pertsona edo erakunderen batek baimena jaso eta Udalaren hizkuntza baldintzei jaramonik egiten ez badie, Udalak bere esku dituen kasuan kasuko neurriak hartuko ditu (baimena ukatzea, fidantza ez bueltatzea edo dagokiona) hizkuntza araudia bete ez dutenen aurka.

Jaietako postuak

Jaiak direla-eta postua jartzeko baimen eske datozenekin, Udalak hitzarmenak sinatuko ditu, haiek postuak jartzerakoan bete beharreko baldintza guztiekin batera euskararen baldintzak ere betetzeko helburuarekin, eta laguntza eskainiko die prezioak, errotuluak eta oharak euskaraz jartzeko, baita girotzeko erabiliko den musikan euskararen erabilera bermatzeko ere.

3 ERABILERA. ZERBITZU HIZKUNTZA

3.1 IRUDIA

Udalaren eta udal erakundeen irudi korporatiboaren elementuak, organoen eta organismoen izenak euskaraz idatziko dira, euskarria edozein dela ere.

3.1.1 Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak

Udal instalazioetan Udalak euskara sustatzen duela adierazten duten elementuak jarriko ditu agerian, hala adieraztea beharrezkoa ikusten denean.

Errotulu, ohar, seinale eta gainerako komunikazio orokorretan euskara erabiliko da. Piktograma baten bidez adierazteko moduko mezuak piktograma hutsarekin adieraz daitezke: komunak, segurtasun oharrak (irteera, su itzalgailua...).

Euskarriak

Gutun azalak, orriak, zigiluak eta abar euskaraz egongo dira. Egutegiak eta horma irudiak ere euskaraz egongo dira.

Udal ibilgailu, jantzi, altzari eta bestelako elementuak euskaraz errotulatuko dira.

Ahozko mezuak

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuetan euskara erabiliko da beti (igogailuak, ate automatikoetako ahozko oharrak, ikus-entzunezkoak...).

3.1.2 Argitalpenak, iragarkiak eta publizitatea

Udalaren eta menpeko erakundeen idazki orotan euskara erabiliko da beti.

- Udalerrian zabaldu beharreko agirietan (bandoak, oharrak...) euskara erabiliko da.
- Iragarpen ofiziala egin beharreko agirietan euskara erabiliko da.
- Sortze hizkuntza euskara izango da, horretarako gaitasuna duten langileentzat.

Arreta berezia jarriko da Udaleko agirietan hizkuntza kalitatea zaintzeko, betiere komunikagarritasuna errazteko. Udalak kontuan hartu beharko du beti agiri ororen hartzailea nor den, eta horretara egokitu. Agiriek argiak eta ulergarriak izan behar dute.

Argitalpenei dagokienez, irizpide orokorra da argitalpenetan beti euskara erabiltzea. Beste hizkuntzaren bat erabili behar denean, Euskara Zerbitzuarekin adostuko da bakoitzari dagokion tokia.

Publizitate kanpainetan, Udalak zuzenean egin nahiz azpikontratatzan direnean, bereziki zainduko da euskarazko esloganak hizkuntza horretan sortu izana eta ez direla gaztelaniaren itzulpen hutsa, eta horrela jasoko da baldintza pleguetan.

3.1.3 Agerraldi instituzionalak

Ekitaldi publikoetan edota prentsaurrekoetan Udalaren izenean aritzen den edozeinek euskarazko gaitasun egokia izango du; eta, euskaraz egingo du ekitaldia edo prentsaurrekoa. Ulertzen ez duenarentzat ulertzeko bitartekoak jartzen saiatuko da.

Ekitaldi publiko horiei lotutako idatzizko euskarriak euskaraz egingo dira.

3.1.4 Webgunea eta sare sozialak

Webgunea

Webgunea euskaraz irekiko da, eta euskaraz nabigatzen ari denari informazio guztia euskaraz bistaratuko zaio, errore oharrak barne.

Web-orrialdeen URL helbideek euskarazko hitzak eduki behar dituzte.

Webgunea beste hizkuntza batean erabiltzen bada, Internet bidez lor daitezkeen idazki guztiek eta online izapidetzeek herritarrentzako agirien hizkuntza irizpide berberak bete beharko dituzte; hau da, euskaraz egon beharko dute.

Beste webgune batzuetarako estekek euskarazko bertsioetara eramango gaituztela bermatuko da.

Sare sozialak

Udalak euskara erabiliko du sare sozialetan.

Legeak horrela aginduta bi hizkuntzatan argitaratu behar izanez gero, lehenetasuna emango zaio euskarazko argitalpenari. Erabiltzaileei erantzutekoan, haiek erabilitako hizkuntza kontuan hartuko da, eta euskara hutsez edo ele bietan erantzungo da. Argazki oinak, traolak eta gainerakoak euskaraz izango dira. Sare sozialetan kontu berri bat sortu behar denean, euskarazko izena jarriko zaio.

Mugikorretarako APPak

Udalaren aplikazioak euskaraz egongo dira, eta aplikazioa instalatzeko hizkuntza modura lehenetsita egongo da euskara. Euskara aukeratuz gero, komunikazio eta agiri guztiak euskaraz bidaliko dira.

3.2 HERRITARREKIKO HARREMANAK

3.2.1 Herritarrekin ahoz

Hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean, Udalaren izenean ari denak lehenengo hitza euskaraz egingo du eta, herritarren adostasunarekin, elkarrizketa euskaraz izan dadin saiatuko da, eskaintza aktiboa sustatuta.

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuetan euskara erabiliko da beti (erantzungailu automatikoz, bozgorailuz... emandakoak).

Herritarra euskaraz hitz egiten hasten bada, udal langileak nahiz zinegotziak euskaraz erantzungo dio.

Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak

Udalak antolatzen dituen ekitaldiak, hitzaldiak, mahai inguruak, jardunaldi teknikoak, ikastaroak, erakusketak eta abarrak euskaraz izango dira, eta euskaraz ez dakitenentzako baliabideak eskainiko ditu Udalak egoki irizten dionean; esaterako, aldibereko itzulpena egiteko tresneria.

Ekitaldi publiko horiei lotutako idatzizko euskarriak, kartelak, izena emateko orriak, balorazio orriak nahiz bestelakoak euskaraz egongo dira.

3.2.2 Idatzizko harremanak herritarrekin

Herritarrentzako dokumentuak

Inprimakiak

Udalak beti izango ditu herritarraren esku euskarazko eta ele bietako agiriak (inprimakiak...), eta, herritarrak agiriren bat eskatzen duenean, udal langileak herritarraren eskaeraren arabera euskarazkoa edo ele bietakoa emango dio.

Beste erakunderen baten inprimakien kasuan ere, Udalak onartuta dituen irizpideak beteko dira. Beraz, gaztelania hutsezko inprimakiren bat etorritz gero, Udalak euskarazko inprimakia eskatuko dio dagokion erakundeari.

Jakinarazpenak, baimenak...

Herritarrei bidaltzen zaizkien agirien kasuan euskara erabiliko da beti (jakinarazpenak, baimenak, dekretuak...).

Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzungo die Udalak idatziz.

Administrazio prozedurari lotutako dokumentuak

Administrazio prozedura jakin batean interesdun diren pertsonen prozedura horren izapideetan sortu den dokumentaziorako irispidea izango dute, gardentasunaren alorreko legediak xedatzen duen eran. Dokumentazio hori sorburu hizkuntza izan duen hizkuntzan kontsultatu ahaliko da; edonola ere, Udalak interesdunen zerbitzura jarriko ditu eskuragarritasuna eta gardentasuna bermatzeko behar diren itzulpen tresna elektronikoak.

Komunikazio elebiduna

Udala komunikazioa euskaraz eta gaztelaniaz egitera behartuta dagoenean, euskara nabarmenduta erabiliko du. Komunikazio elebidunetan euskara nabarmentzeko neurriak:

- Kokapena: euskara goian eta gaztelania behean jar daiteke. Zutabeetan jartzen bada, ezkerrekoa euskarazkorako erabiliko da; eta, orriak badira, berriz, eskuinekoa erabiliko da euskarazkorako.
- Tipografia: letra tipoa edo tamaina erabil daitezke euskarazko testua nabarmentzeko.
- Gaztelaniaz euskaraz jarritakoaren laburpena jar daiteke, edota itzulpenera bideratuko duen lotura edo QR kodea.

4 ERABILERA. LAN HIZKUNTZA

4.1 BARNE HARREMANAK

4.1.1 Lankideen arteko ahozko harremana

Telefonoz eta aurrez aurre lehenengo hitza euskaraz egingo da.

Lan ordutegiko ahozko harremanei dagokienez, kontuan hartu behar da jendaurreko lanpostuetan (bai leihatilaren beste aldean bai kalean) herritarrari lehenengo hitza euskaraz egin arren, herritarrarentzako pisu handia daukala udal langileek beraien artean zein hizkuntzatan hitz egiten duten. Udal eraikinetan entzuten den hizkuntza Udalaren irudia ere bada.

Udal langileek beren artean euskaraz hitz egin dezaten sustatuko du Udalak.

4.1.2 Lan bilerak

Udal bileretako hizkuntza euskara izango da.

Batzar edo batzorde berriren bat egin behar denean, batzordekide berriak hautatzerakoan, kontuan hartuko da lan hizkuntza euskara izatea dela Udalaren helburua. Batzordekideek bi hizkuntza jakitea hartu beharko da kontuan, edota batzordekideren batek gaitasunik ez balu, hori gainditzeko baliabideak jartzeko aukera aztertuko da (aldibereko itzulpena, xuxurlaria...).

4.1.3 Lanari lotutako hizkuntza paisaia

Apal, artxibategi, karpeta eta abarretan jartzen diren etiketak eta noizbehinkako oharra euskaraz idatziko dira. Era berean, ordenagailuan dauden karpetak euskaraz izendatuko dira.

4.1.4 Erakunde barruko idatzizko lan harremanak

Erakunde barruko idatzizko lan komunikazioak euskaraz egingo dira (memoria, azterketa, txosten eta zirriborroak bezalako dokumentuak). Barne iragarki tauletako oharra, zirkularrak, jakinarazpenak eta antzekoak euskaraz jarriko dira.

Langileek barne izapideak egiteko dauzkaten baliabideetan (aplikazioak, inprimakiak...) izapide horiek euskaraz egiteko modua egongo da.

Langileentzako inprimakiak: baimenak, bidaia, ikastaro eta otordu ordainketak, iradokizunak eta antzekoak euskaraz idatziko dira. Idatzi estandarizatu eta lege dokumentuak euskaraz emango dira.

Barne txostenak: zabalkunde handiko barne txostenak eta txosten laburrak euskaraz egongo dira.

4.1.5 Prozedura administratiboak abian jartzeko hizkuntza

Ofizioz hasitako prozedura administratiboak euskaraz jarriko ditu abian Udalak.

4.1.6 Eskritura publikoak

Udalak euskaraz egingo ditu eskritura publikoen idazkera eta haien inskripzioa dagokion erregistroetan.

4.1.7 Araudi orokorrak

Ordenantzak eta antzeko araudi orokorrak izapidetzeko urrats guztiak euskaraz abiaraziko dira.

4.2 KANPO HARREMANAK

4.2.1 Sektore publikoko erakundeekin ahozko harremana

Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan kokatuta dagoen erakunde publiko batekin hitz egin behar denean, telefonoaren bestaldean dagoena euskalduna ez bada, euskaraz hitz egiteko gai den norbait eskatuko da. Hala, Udalaren eta beste erakunde publikoen arteko harremanak euskara hutsez izan daitezten bermatzeko, alde biko hitzarmenak egitea sustatuko du Udalak.

4.2.2 Sektore publikoko erakundeekin idatzizko komunikazioak

Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan kokatuta dauden beste administrazio publikoekin nahiz erakunde ofizialekin, euskara ofiziala den lurraldeetakoekin behintzat, euskara hutsezko harremanak bultzatuko dira, eta horretarako beharrezko neurriak hartuko dira. Haiei bidali beharreko dokumentazioan euskara bakarrik erabiliko da, eta beraiengandik euskaraz jasotzea eskatuko zaie.

Horrenbestez, horietako batek hala jokatu ezean —hau da, gaztelania hutsezko agiria bidaliz gero—, sarrera eman eta idazki horren kopia bat bueltatu egingo da gutun batekin batera, jakinarazpen administratiboak euskaraz jaso nahi direla adieraziz.

EAEko lurralde esparruan kokatutako estatuarentzako eta beraren mendeko administrazioentzako komunikazio administratiboetan ere euskara erabiliko da beti. Administrazio horietatik gaztelaniaz jasotako idazkien kasuan, sarrera eman eta idazki horren kopia bat bueltatu egingo da gutun batekin batera, jakinarazpen administratiboak euskaraz jaso nahi direla adieraziz.

4.2.3 Enpresa pribatuekin ahozko harremana

Hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean, Udalaren izenean hizketan ari denak lehenengo hitza euskaraz egingo du. Ondorengo elkarrizketa ere euskaraz izatea sustatuko du, eta horretarako euskarazko solaskidea eskatuko du.

Izan ere, kontuan eduki behar da elkarrizketa baten lehenengo hitza euskaraz izatea oso garrantzitsua den arren, geroko elkarrizketa ere euskaraz izan behar dela, solaskideak gaztelaniaz egin nahi duela adierazten ez badu.

50

4.2.4 Enpresa pribatuekin idatzizko komunikazioak

Erakunde pribatuetarako agirien kasuan euskara erabiliko da beti (jakinarazpenak, baimenak, dekretuak, gutunak...). Erakunde pribatuak gaztelaniaz jasotzeko eskaera egiten badu, ele bietan helaraziko zaizkio.

4.3 PRESTAKUNTZA

4.3.1 Langileentzako prestakuntza

Udalak antolatzen dituen ikastaro guztiak euskaraz izango dira.

Langileek beste erakunderen edo enpresaren batek antolatzen dituzten prestakuntza ekintzetara joan behar badute, euskarazkoa hautatuko dute, aukera den guztietan.

Ikastaroen jarraipena egingo da, eta gaztelaniaz bakarrik antolatzen dituzten erakundeei Udalak jarduera hori euskaraz izan dadin eskatuko die, zuzenean harremanetan jarritz.

4.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK

Langileei tresna edo aplikazio informatikoak esleitzerakoan, Udalak euskarazko bertsioa jarriko die beti guztiei eta euskarazko nabigazioa lehenesteko moduan jarriko dira ezarpenak.

Aplikazio informatikoak kontratatu edo garatu behar badira, euskarazko bertsioa dutenak lehenetsiko ditu Udalak. Administrazio jarduera automatizatuko sistemak nahiz bestelako aplikazioak diseinatzeko direnean, euskara izango da lehen hizkuntza, erantzuteko eta kontsultak egiteko.

Agiriak elektronikoki euskaraz sinatuko dituzte Udaleko langileek eta ordezkariak, eta horretarako prozedura bat egongo da dagozkion programa eta aplikazioetan hala egingo dela ziurtatzeko.

4.5 SORTZE HIZKUNTZA

Udaleko administrazio atal eta lanpostuetako dokumentazioa euskaraz sortuko dute horretarako gaitasuna duten langileek.

4.5.1 Itzulpen irizpideak

Udala gaztelaniaz eta euskaraz aritzera behartuta dagoenean, era arrazionalizatuan erabiliko dira itzulpengintza eta interpretazio zerbitzuak. Ahal den kasuetan, langileak berak sortuko ditu euskarazko testuak. Ahaleginak egingo dira euskaraz idatzitako dokumentuak gaztelaniara ez itzultzeko, dokumentu horiek erabili behar dituzten langileek edo ordezkariak ulertzeko euskara gaitasun nahikoa (B2) badute. Edonola ere, langileei eta zinegotziei dokumentuak edo mezuak ulertzen lagunduko zaie, behar duten guztietan.

Helburua langileak lana euskaraz egitea denez, gaztelaniatik euskararako itzulpenak arrazoitu egin beharko dira: kanpotik etorritako agiriak direlako, euskarazko eredurik ez dagoelako...

Txosten, jakinarazpen, baldintza agiri eta antzekoak egiterakoan, aldeztu aurretik sortuta egon daitezkeen dokumentu ereduak bilatzeko saiakera egingo da; lortu ezean, UEMAra kontsulta egingo da, euskara teknikariaren bitartez.

Itzulpen lana errazte aldera, itzultzaile neuronalen laguntza izango dute langileek. Tresna horiek egindako itzulpenen kalitate maila ona da oro har, baina muga batzuk dituzte; horregatik, funtsezkoa da testuak berrikustea eta, beharrezkoa denean, zuzenketak egitea. Itzultzaile neuronalen erabiltzaileak izango dira sortu dituzten testuen eta testu horiek zabaltzeak izan ditzakeen ondorioen erantzule zuzenak.

Euskarazko txostenak eta antzekoak gaztelaniaz ere jarri behar badira, jatorrizkoa euskarazkoa dela jakinarazteko esaldi bat gehituko zaio hasieran.

Itzulpena egiteko Euskara Zerbitzura jo ahal izango dute udal langileek, baldin eta bolumenagatik, zailtasunagatik, garrantziagatik edo izango duten zabalkundeagatik testu estrategikoak badira.